



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2010-03-17**

VIII. URTEA 1954. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Galarretan erremontearen aro berri bat hasiko da apirilaren 1etik aurrera

PATXI ZEBERIO «Larunbatean jendea animatuta eta gogotsu zegoen, hau aurrera atera behar dela esanaz»

IÑAKI AGIRRE 'GAZTELU' «Ateak itxita badaude, deus ez dago, irekita segitzen badute beti dago aukera bat» 7



Tolosako udaletxean aurkeztu zituzten datorren asteburuko bi ekitaldiak. I. TERRADILLOS

SAHARAREN ALDEKO BI EKITALDI ANTOLATU DITUZTE BEOTIBARREN

TOLOSA Gure Txokoak pilota partidak antolatu ditu hilaren 26ean eta Tolosaldea Sahararekin elkartea bertso jaialdia 28an 2

MAY GOROSTIAGA INPROBISATZAILEA

«Motibazio handiarekin nago eta gogotsu joango naiz estreinaldira»

TOLOSA 'May Gorostiaga! Presente!' lana aurkeztuko du bihar Topic-en, 20:30ean 3



ESTIEZEIZA



Herriko plazan dagoen eraikinean egokitze lanak ari dira egiten. E. MAIZ

Kultur jardueretako lokalen egokitze lanak maiztean amaituko dituzte

ADUNA Landagipuzkoa 32 egitasmotik 142.983,40 euroko diru-laguntza bideratu dute 4

Gazte Festak bihar hasi eta larunbatean amaituko dira

BERASTEGI Herriko antzerki taldeak jaien lehen egunean estreinatuko du bere azken lana 6

Pilota eta bertso jaialdia izango dira datorren astean Sahararen alde

Elkartasuna » Hilaren 26an pilota jaialdia egingo dute, eta 28an bertso saioa; bi ekitaldiak Beotibar pilotalekuan izango dira.

INIGO TERRADILLOS

Sahararen aldeko bi ekimen hartuko ditu Tolosako Beotibar pilotalekuak datorren astebeburuan. Batetik, Bertsolariak Txapelketa Nagusiko finala izan ziren bertsolari gehienek parte hartuko duten bertso jaialdia izango da hilaren 28an, eta bestetik, pertsonaia ezagunak ariko diren pilota jaialdi berezia, hilaren 26an. Helburu bera izango dute bietan, Sahararen alde dirua biltzea, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin bultzatzen ari den hezkuntza proiekturako, hain zuzen.

Pilota jaialdi berezia

Gure Txokoa elkartearen eskutik, hilaren 26an pilota jaialdi berezia gozatzeko aukera izango da. Frontenis partidarekin hasiko da jaialdia, eta bi bikote ariko dira nor baino nor: **Joxepa** (Joseba) Usabiaga aktoreak eta Nagore Arozana munduko paleta txapeladunak osaturikoa eta **Ikerne** (Iker) Galarza aktoreak eta Ainhoa Montes Munduko paleta txapeladunordeak osaturikoa. Bigarren partida bat ere izango da ikusgai; kasu honetan, paleta gomarekin ariko dira beste bi bikote: Koteto Ezkurra erremontistak eta Garikoitz Mendiz-



Tolosaldea Sahararekin eta Gure Txokoa elkarteak kideek aurkeztu zituzten herenegun bi jaialdiak. I. TERRADILLOS

bal txistulariak osatuko dutena eta Patxi Zeberio erremontistak eta Mikel Unanue pilotariak osaturikoa.

Ekimen berezi honetarako sarrerak 5 euroan jarri dituzte salgai Gure Txokoa elkarteak. Gainera, jaialdia joaten diren artean afariak zozketatuko dituzte herriko hainbat jatetxetan.

Bertso saio dotorea

Bi egun geroago, hilaren 28an izango da Tolosaldea Sahararekin elkarrekin antolatutako bertso jaialdia. Pilota jaialdia bezala, Beotibar pilotalekuan izango da, 18:00etan hasita. Bertsolariak Txapelketa Nagusiko finalera heldu zirenia bertsolari gehienak berriro taula gainean ikusteko aukera izango da. Maialen Lujanbio ordez Uxue

Alberdi ariko da bertsoan. Zortzi bertsolari guztira, eta hauentzat gaiak jartzeko ardua Amaia Agirrek izango du. Aldez aurretik sarrerak erosteko aukera dago 10 euroren truke, edota egunean bertan bestela, 12 euroan.

Elkartasun ekimenak

Ekitaldiak «bereziak eta kalitatezkoak» izatearekin batera, parte hartzen duten elkartasuneko proiektu batean lagunduko dute, izan ere, bi jaialdietan ateratzen duten dirua Mendebaldeko Sahararen hezkuntza proiektu bat bultzatzeko erabiliko dute.

Tolosaldea Sahararekin elkarrekin antolatutako Saharako lurralde askean dagoen Miyic herrian ikastetxe bat eraiki nahi du, eta horretarako baliatuko dute lor-

tutakoa. Orain arte bultzatu dituzten proiektuak errefuxiatuen kanpalekuetarako izan dira, baina aske dagoen lurraldean ere behar handiak direla ikusi dute, eta horregatik erabaki dute han bultzatzea proiektua.

Bi ekimen horietan lortzen dutenaz gain, Laskorain ikastolak antolatutako Merkatu Txikian jasotakoa eta norbanakoei ematen dutena ere erabiliko dute, horregatik, era batera edo bestera laguntzen duen herritar oro eskertu nahi dute Sahararen aldeko elkarrekin.

Bai Tolosaldea Sahararekin bai eta Gure Txokoa elkartetik bi jaialdietan parte hartzeko gonbita lutzatzen diete herritarrei, «ikuskituz politez gozatzeko aukera izango baita».

» DATUAK

Pilota jaialdia

■ **Zer.** *Joxepa* Usabiagak eta Nagore Arozana osaturiko bikotea Ainhoa Montes eta *Ikerne* Galarzaren aurkako frontenis partida; ondoren, Koteto Ezkurak eta Garikoitz Mendizabalek osaturiko bikoteak Patxi Zeberioak eta Mikel Unanuek osaturikoaren aurka jokatu du paleta gomazko pilotarekin.

■ **Antolatzailea.** Gure Txokoa elkarteak.

■ **Non eta noiz.** Beotibar pilotalekuan izango da, hilaren 26an, 19:00etan.

■ **Sarrerak.** 5 euro. Egunean bertan erosi ahaliko dira.

Bertso jaialdia

■ **Zer.** Uxue Alberdi, Amets Arzaillus, Sustrai Colina, Andoni Egaña, Unai Iturriga, Ion Maia, Aitor Mendiluze eta Aitor Sarriegi ariko dira bertsoan, eta Amaia Agirre gai-jartzaile lanetan.

■ **Antolatzailea.** Tolosaldea Sahararekin elkarrekin.

■ **Non eta noiz.** Beotibar pilotalekuan izango da, hilaren 28an, 18:00etan.

■ **Sarrerak.** Aurrez 10 euro, eta egunean bertan 12 euro. Azpeitiko Eliku zentroan, Lasarteko Jalgi tabernan, Tolosako Orbela, Raku eta Ikatza tabernetan eta Kutxanet bidez eros daitezke.

Proiektua

■ **Zer.** Tolosaldea Sahararekin elkarrekin Mendebaldeko Saharako lurralde askean kokaturiko Miyic herrian ikastetxe bat eraiki nahi du bi ekimen horietan lortzen duten diruarekin. 60.000 euro inguruko aurrekontua izango du proiektuak.

'Goenkale'-n parte hartzeko aukera

GIZARTEA » Tolosako Alde Zaharreko bizilagunentzat ohiko bilakatu da asteartero kamerak eta aktoreak bertan grabaketa lanetan ikustea. Izan ere, hilabete ugari dira ETB1eko *Goenkale* telesaileko kanpoko irudiak egiteko Tolosara etorri zirenetik. Bada, telebista, zinema edota telesailen mundua guttuko dutenek aukera polita dute orain, figurante bila ari baitira egunotan. *goenkale@eitb.com* helbidera datuak bidali edota 943 01 16 76 zenbakira deitu behar da. Edonork har dezake parte. A. IMAZ



@ Irudietan. Eskualdean gertatuko ekitaldi esanguratsuenen ikus-entzunezko ugari dituztu ikusgai gure webgunean. Jaia, hitzaldiak, kirol jarduerak, kontzertuak, antzerki... denetarik topatuko dute: www.tolosaldekohitza.info

Tolosako Udala

IRAGARKIA

Tokiko Gobernu Batzarrek, 2010.eko azaroaren 16an egindako bileran Tolosako Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziari hasierako onepena eman zion.

Espedientea erakusketara publikoan hiru hilabetez egon da eta honako argitaratze hauek izan dira: Udaletxeko iragarki taulan; Gipuzkoako A.O.ean, 2009-12-09an; D.V.n, 2009-12-03an; Berrian, 2009-12-03an eta Tolosaldeko Hitza-n, 2009-12-03an. Epea 2010 martxoaren 10ean bukatzen da.

Tolosako Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren jendaurreko epea lutzatzeko 2010eko apirilaren 12 arte.

Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Diario Vascon, Tolosaldeko Hitza eta Berrian argitaratuko da. Aurrean aipatu den epea argitalpen horietako azken iragarpena kaleratu eta biharamunetik hasiko da kontatzen.

Epe horrek dirauen artean, ikusi eta aztertu nahi duenaren esku egongo da espedientea Tolosako Udaletxeko Hiriguntzako Bulegoan, Plaza Zaharra 6-B eraikinean. Alegazio edo erreklamazioak eraikin horretan bertan dagoen Sarrera Erregistrotan Orokorrean aurkeztuko dira alkate-lehendakariari zuzenduta.

Tolosan, 2010eko martxoaren 9an.

ALKATEA.

KEY-LAN
Sarrailgintza

Nafarroa etorb. 13 beheko - TOLOSA
Mug.: 670 41 79 22
Tel./Fax: 943 65 83 13

Iragarki laburrak

LANA

■ **Eskaintza.** Sukaldari, zerbitzari, okin edo gozogle bezala lan egin gabe. 662 49 40 78.

SALGAI

■ **Motorra.** KTM 125 SX markako motorra salgai. 1998. urtekoa da. Egoera oso onean. 651 70 90 23.

Azterketarik eta etxeko-lanik gabeko Esperientzia Eskolarekin «gustura»

Hezkuntza » Mugabe elkarteak antolatutako Eskola ikasturte amaierara iristen ari da; ikasleak 50 urtetik gorakoak dira.

A. IMAZ

Tolosako Musika Eskolan ikasle bereziak elkartzen dira asteartean eta asteazkenetan. Klaseak 10:00etatik 13:00etara hartzen dituzte eta aulkietan irakasleari begira esertzen baldin badira ere, alderantzizko papera egiteko ez lukete inolako arazorik edukiko Esperientzia Eskola honetan.

Hirugarren ikasturtea

Mugabe elkarteak antolatu du Tolosako Esperientzia Eskola, hirugarren urtez jarraian. 50 urtetik gorako pertsonen zuzendua dago eta bertan izena emateko aurretik ez da behar titulazio akademiko-



Esperientzia Eskolako ikasle, irakasle eta koordinatzailea Tolosako Musika Eskolan. ASIER IMAZ

rik. Hori bai, 2009/10 ikasturtea maiztean amaituko da, urrian jarri baitzuten martxan.

Hurrengo ikasturtean izena

eman edo soilik informazioa jaso nahi dutenek 943 22 41 46 telefono zenbakira deitzea nahikoa izango dute.

Jakintza lantzen

Esperientzia Eskolan gai desberdinak lantzen dituzte Marta Gonzalez koordinatzailearen esane-

tan: «Psikologia, Osasunaren prebentzioa, Artearen historia, Literatura, Filosofia... azterketarik ez dute egiten, ezta etxeko-lanik ere. Hona etorri, entzun eta nahi baldin badute parte hartu, azken hau ere ez da beharrezkoa. 50 urtetik gorakoentzat da kurtsua eta ikasleak Tolosaldekoak dira, gehienak emakumeak. Horregatik, gizoni hurrengo urtean parte hartzeko deialdi berezia egin nahi diegu».

Irakasleak materia bakoitzean espezialistak dira, Gonzalez esanetan: «gaiak egun batean, bitan edo gehienez hirutan lantzen dituzte Esperientzia Eskolan. Gero, hurrengo gaiarekin hasten dira. Helburua ez da jendea jakintsu bilakatea, jakintza lantzea baizik, ondoren bakoitzak bere alde-rik irakurriz edo gaiak landuz jarrai dezan».

Jendearren erantzunarekin «oso gustura» agertu da Marta Gonzalez koordinatzailea. «Lehen urtean hamalau ikasle eduki genituen eta aurten 32k eman zuten izena. Lehen esan bezala gehienak emakumeak dira eta gizonen ahalegin berezi bat egin nahiko genuke hurrengo urtean, ikasturte berriari begira».

E Elkarrizketa

MAY GOROSTIAGA » Inprobisatzailea

«Publikoak gauzak proposatuko dizkit eta nire inprobisazioak hortik joango dira»

Kultura » May Gorostiagak bere azken lana aurkeztuko du Topic-en bihar 20:30ean. «Estreinaldi mundialerako gogotsu» aurkitzen da tolosarra.

ASIER IMAZ

Tolosako Topic-en bihar aurkeztuko du bere azken lana May Gorostiagak (Tolosa, 1971): «May Gorostiaga! Presente! Emanaldi 20:30ean hasiko da eta sarrerak 10 euroren truke Topic-eko leihatilan eta Kutxako kanaletan, Servikutxa, www.kutxa.net-en eta Telekutxan egongo dira salgai. Bertara gerturatzen direnek Gorostiagarekin gozatzeko aukera izango dute.

Oraingo honetan zer aurkeztuko digu May Gorostiagak?

Kristoren estreinaldi mundiala. Bat-batekotasunari edo inprobisazioari buruz joango da eta publikoak proposatuko ditu entsalada moduko hau egiteko osagaiak.

Harreman zuzena edukiko duzu beraz publikoarekin. Horrek gidoirik ez dela egongo esan nahi al du?

Publikoarekin hasiera-hasieratik

sortuko da komunikazioa. Nola joango den ez dut aurreratu nahi baina, publikoak gauza batzuk proposatuko ditu eta nire inprobisazioak hortik joango dira. Proposamen horiek betetzeko eszena batzuk hartuko ditut eta... Gidoiaren inguruan berriz, eszena guzti horiek hari gidatzaile bati loturik joango dira, orokorrean istorio bat sortuko dutelarik.

Aurkezpena non eta etxean bertan.

Hori da, etxean eta Topic-en gainera. Tolosarra izanik txotxongilo zalea naiz eta Topic-en aurkeztu ahal izatea berezia izango da. Motibazio handiarekin nago eta gogotsu joango naiz estreinaldira.

Publikoan senideak, lagunak, ezagunak... egongo dira. Presioa ere sentituko duzu, ezta?

Alde batetik bai. Beraiek gure lana ezagutzen dute; nondik gatozen eta zer egin dugun. Hor jarraipen bat badago. Alde horretatik presio pixka bat sentitzen duzu, baina beste alde batetik, poza ere bai. Inguruko jendea hor dagoela jakitea pozgarria delako.

Bat-batekotasuna oinarri duen lan bat nola prestatzen da?

Oso desberdina eta oso prozesu kurioso da. Ez dago gidoirik ikasi eta errepikatzeko. Entrenamendu



L. TERRADILLOS

bat bezalakoa da: gimnasiora joan eta dohain batzuk entrenatu behar dituzu. Oholtza gainean arazoren bat sortzen baldin bada, hortik ateratzeko aurrez lan bat eginda eduki behar duzu. Hala eta guztiz ere, beti daude trukotxoak. Emanaldira eskema edo oinarri batekin joaten zara baina oso esnatuta eta entrenatuta egon behar duzu aurrera atera ahal izateko.


'May Gorostiaga! Presente!' Nondik dator izenburu hau?

Inprobisaketa batean aktorea da orain. Antzerkiarekin gauza bera, antzerkia da orain eta hemen, beti. Film bat edo beste ikuskizun bat desberdina da. Antzerkia orain

gertatzen da, berritua ikusten baldin baduzu ez da gaurkoaren berdina izango. Haurra nintzenean lista pasatzen zuten eskolan, gogoratzen dut presente nola esaten genuen memento horretan bertan, ez lehenago eta ez geroago. Presenteren kontua hortik dator pixka bat, orain eta hemen. Haurraren kontu hau zergatik? Nik beti esan izan dut umeak direla aktore onenak. Antzerkia berez joko bat da, helduok antzerki bezala deitzi behar duzu. Hala eta guztiz ere, Jolastea bezalakoa da; bestearen azalean sartu eta bere bizitza bizitzea.

Zalantzan daudenak nola erakarriko ditugu bihar Topic-era?

Nire ustez zerbait desberdina ikusteko aukera edukiko dute. Nik tranpolina eta igerilekua jarriko ditut, jauzi egingo dut eta publikoaren laguntzarekin izugarritzko akrobaziak egiten saiatuko naiz. Horregatik da beharrezkoa publikoak.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Herriko plazan dagoen eraikinean egingo dituzten Musika Eskolako gelek atzeko aldetik izango dute sarrera. E. MAIZ

Kultur jardueretarako lokalak egokitzen ari dira

Aduna » 142.983,40 euroko laguntza jaso dute eta Loatzo Musika eskolako gelez gain, beste bi ere egokituko dituzte.

ENERITZ MAIZ

Landagipuzkoa32 programaren barruan, Adunan jada hasita daude kultur jardueretarako lokalak egokitze lanekin. Plaza gunean dagoen eraikinean, otsaila hasieratik obretan daude.

Arantza Aburuza herriko alkateak azaldu duenez «urtarrila

amaieran egin genuen bilera Etorlurrekoekin eta Goitu Eraikuntzak izan zen aukeratua obra hauek egiteko. Eta otsaila hasieran hasi ziren lanean». Hiru hilabete eta bi astetan lanak bukatuta egotea aurreikusten dute, beraz maiatzean bukatuko dituzte lan guztiak.

142.983,40 euroko laguntza jaso dute eta kultura jardueretarako lokalak egokitze baliatuko dute. «Egokitu behar ditugun lokalak bi solairutan banatuta daude. Behereko solairuak dituen 61,23 metro karratuak Loatzo Musika eskolarako egokituko diren bi gela izango dira eta guztiz intsonorizatuak izango

dira. Bestetik, trastelekuarekin ere izango du eta komunak bi solairuetan izango dira» argitu du Aburuza.

Gaur egun, Loatzo Musika eskolako udalarekin aurkitzen diren geletan ematen ditu klaseak eta behin obra hauek amaitu eta guztia egokitzen dutenean, Musikako klaseak bertan emango dituzte. Sarrera, eraikinararen atzeko aldetik izango du eta ezinduentzako guztiz egokituak izango da. Inguruak txukuntzen dutenean berriz, lehen bezala, zelai berdea izango da.

«Goiko solairuak berriz, 89,94 metro karratu ditu eta bigela handi izango dira. Gela bakoitzak sarrera independentea izango du eta oraindik ez dugu zehaztu zein era bilerak izango duten» azaldu digu Arantza Aburuza.

Ur sarea hobetzeraz doaz

Bestalde, edateko ur sarea hobetzeko proiektuaren esleipena egin zuten atzo izandako ez ohiko bilkuran. Helburua, herri guztiko ur edangarriaren sarea hobetzea izango da. Lehenetsuna behar handiena duten zatiei emango diete. Lan hauek egiteko, Eusko Jaurlaritzatik lortu duten diru laguntza baliatuko dute.

42. Aizkardiko Ibilaldi neurtuan izena emateko aukera zabalik dago

Villabona » 580 ibiltarik dagoeneko izena eman dute. Ibilaldi luzeak eta motzak 42 eta 24 kilometro izango dituzte.

ERREDAKZIOA

Aizkardi Mendi Taldearen 42. Ibilaldi neurtua izango da martxoaren 28an, igandean. Ohi bezala ibilaldi luzea eta motza izango dira. Izena emateko epea zabalik dago eta antolatzaileen esanetan, alde zuzenarekin ematea komeni da. Dagoeneko, ibilaldi luzean, 452 lagunek eman dute izena eta motzean 128k.

Ibilbide luzea, 14 urtetik gorakoentzat da eta 42 kilometro egin behar harko dira, 2.250eko desnibelarekin. Irteera 07:00etan izango da eta ibilbidea Villabona, Otieta, Lapurtxulo, Onddo, Azketa, Leuneta- Abadekurutz, Mandoegi-Kondizatzeko lepoa-Leitzarar, Gorosmend, Mugaga, Urdelar, Belabieta, Komizar eta Villabona da.

Ibilbide motzaren kasuan ere 14 urtetik gorakoentzat da eta 24 kilometro eta 1.150 metroko desnibela izango du. Irteera ordua, 08:00etan izango da eta ibilbidea Villabona, Otieta, Lapurtxulo, Astabizkar, Amasola, Praxku, Kanal Handia, Lastur eta Villabona da.

Errebote Plazatik abiatuta manifestazioa egingo dute bihar 20:00etan

Villabona » Jon Anzaren heriotza eta gorpua inguruan gertatzen ari dena salatzen izango da.

ERREDAKZIOA

Azken egunetan, Jon Anza euskal militante politikoaren gorpua inguruan gertatzen ari dena salatzen, bihar, hilak 18, 20:00etan manifestazioa egingo dute Villabonako Errebote Plazatik abiatuta. Amnistiaren Aldeko Mugimenduen esanetan, «azken hilabeteetan mahai gainean jarri dugun susmoa baieztatu baino ezin dugu egin». Heriotzaren inguruan «ematen ari diren bertsio sinestezinak ikusita, Anzaren heriotza eta desagerpenaren atzean Espainiako eta Frantziako aparatuen errepresiboak daudela ziurtzat jotzen dugu». Gertaera larri hauen aurrean «datozen egunetan burutuko diren mobilizazioetan parte hartzeko» deia luzatu dute.

Laburrak

Autodefentsarako ikastaro trinkoa larunbatean

ZIZURKIL » Hilaren 20an Autodefentsa ikastaro trinkoa izango da, Maitena Monroyrekin Atxulondo Kultur Etxean. Goizeko 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era izango da. Ikastaroaren helburua, edozein adin eta ezagarrri fisikoetako emakumei eraso baten aurrean erantuz egokia ematen erakustea da. 35 euroko kostua du eta bazkaria barne dago.

AHT-ren 'Egoera eta inpartak' hitzaldia bihar

IKAZTEGIETA » Abiadura Handiko Trenaren obrak eskualdera iritsi direla eta, bihar 19:30ean Ikaztegieta liburuetan *Eskualdeko egoera eta inpartak* hitzaldia eskainiko dute. Ikaztegieta aldetik josten den Tolosako Ugane auzoan hasi dira obrak. Hilaren 25ean berriz, Ikaztegieta Udaletik Ugane auzorako martxa egingo dute 19:00etan abiatuta egiten ari diren obrak ikusteko.

'Erlea' aldizkariaren bigarren zenbakia

ASTEASU » Bernardo Atxaga idazlearen zuzendaritzapean, *Erlea* aldizkariaren bigarren zenbakia aurkeztuko dute Bilbon. Erlea aldizkaria Euskaltzaindiak argitaratzen du eta Pamiela argitaletxea arduratzen da edizioaz eta diseinuaz.

Itzalaldi analogikoa baino lehen prestatzeko deia

ADUNA » Apirilaren 3an emango da itzalaldi analogikoa eta epe hori baino lehen, Udalak herritarrei, euren etxeetako telebista eta antenak prest izan beharko dituztela gogorarazi nahi die.



Loiolako negoziazio prozesuaren kronika

Prozesuaren kronika zehatza egin du Imanol Murua Urika kazetariak *Loiolako hegiak* liburuan, orain arte inor gutxi ezagutzen zituen datuak argituz.

Loiolako negoziazioaren protagonista izandako Jesus Egiguren, Iñigo Urkullu eta Arnaldo Otegiaren testigantza.

eskaintza berezia
BERRIAren eskutik

15€

Egin eskaera eta etxean jasoko duzu
www.berria.info
harpidetza@berria.info
943-30 43 45

Aukera ezazu, BIZI EUSKARAZ
berria

Tolosaldeko komunikabide batek

Kazetaritzan edota Euskal Filologian lizentziatuak edo ikasleak behar ditu lan poltsa osatzeko.

Interesatuak deitu **687 41 00 32** telefono zenbakira edo bidali curriculum-a tolosaldean@tolosaldekohitza.info helbidera

Nongua Jazz eta Kakauete taldeak bihar Bonberenean

ERREDAKZIOA

Ohikoa baino asteburu luzeagoa dugu aurretik eta beraz kultur eskaintza ere ohikoa baino zabalagoa izango da. Tolosako Bonberenean ere kontzertu gehiago antolatu dituzte. Bihar osteguna, Nongua Jazz eta Kakauete taldeen kontzertua izango da 22:30ean.

Etzi ostiralean aldiz, 121 db eta Lauroba entzuteko aukera izango da, rock doinuak nagusituko direlarik. 121 db taldea Valentziatik etorriko da Tolosara. 2004an sortu zuten taldea eta bigarren lana eskainiko dute Bonberenean, *Assaig/Error* (2009, Gor). Lauroba, aldiz, talde andoindarra da eta hauek ere euren bigarren lana *...egunarekin* (2010, Gor) aurkeztuko dute Tolosan.

Larunbatean Memo eta Kaleginez taldeen txanda izango da 22:30etik aurrera. Memo punk-egiten duen talde iruindarra da eta Kaleginez ere talde nafarra da, Sakanakoa, hain zuzen. 2008an sortu zuten taldea eta punk-hardcorea egiten dute. *Bueltarik gabe* lehen diskoko kantak eskainiko dituzte etxe autogestionatuan.

Alebin mailako Gipuzkoako finalurrekoak Alegian

ERREDAKZIOA

Gaur 19:00etatik aurrera alebin mailako Gipuzkoako Txapelketako finalurrekoak jokatuko dituzte Alegiako frontoian. Lehenik eta behin Bergara eta Antiguoko lehiatuko dira eta ondoren Beharzana eta Intxurre 1 (Gorka Altuna eta Aratz Irazustabarrena).

Joan den asteko partideti dagokionez Udaberri Txapelketan 3. mailako nagusietako finalurrekoetan Intxurre 1ek (Alonso-Olano) 22-15 irabazi zion Intxurre 2ri (Ibarguren-Erauskin). Horiek horrela, Intxurre 1 taldea hilaren 28an jokatuko den finalerako sailkatu da.

Deba-Goierrri-Tolosalde eskualdeko Txapelketan alebinen finalurrekoetan Intxurre 2k (Jon Luzuriaga, Xabier Luzuriaga, Aitor Murua) 16-5 irabazi zion Lapke Ii (Lazkaoko taldea).

Intxurreren taldea, hilaren 27an Lazkaon jokatuko den finalerako sailkatu da, hortaz.

Zuzenketa. Ekaitz Saralegik Bigarren Mailako Binakako Txapelketaren finala ez du asteburu honetan jokatu, hurrengoan baizik.

Bide Ertzean Elorrion eta Eskoriatzan

Tolosa » Datozen asteetan eskainiko dituzten kontzertuetan prestatzen ari diren lan berriko abestiak eskainiko dituzte.

ERREDAKZIOA

Tolosako Bide Ertzean taldea disko berria ari da prestatzen, baina hala eta guztiz ere, kontzertuak ematen jarraitzen dute.

Asteburu honetan bertan, Elo-



Bide Ertzean taldea lan berria prestatzen ari da. HITZA

rizango dira eta baita Eskoriatzan ere. Elorrion Ateneoan bihar eskainiko dute zuzeneko 22:30etik aurrera eta Eskoriatzan berri, Unibertsitatean izango dira ostiralean 22:30ean.

Kontzertuetan abesti berriak joko dituztela argitu dute musikariek.

Datorren asteburuan Gasteizko Jimmy Jazz aretoan izango dira (hilak 25), Donostiako Lugaritz kultur etxean (hilak 26) eta Gernikako gaztetxean (hilak 28).



PROFESIONALENTZAKO

TANFA FINKO OSOA

Deitu 0 zent./min. ordainduta
Edozein ordutan
Operadore guztietara
Bidali 100 SMS hilean
Hilean 100 MB-ko Internet eta posta

Hori guztia, hilean

59,9 € bakarrik ordainduta

zuntzOptikoa

zuntz Euskaltelen saltokira, ez du deitu 900 840 200 telefono-zerbitzua

Tanfa Finko Osoa Muga: Hilean 100 minutu, edozein ordutan estatuko Finko edo mugikorrarekin deituko. Estatuak deialak eta SMSak. Ez dira erakusten sartze zerbitzu berezi kalitatezko deialak, sare administrazioa, sartze zerbitzu zerbitzuak, bideo deialak, roaming a, nazioartekoak, datu konexioak, SMSak/MMSak eta Premium mezuak (zerbitzu horiek indarman daukete sarritan sistema kobazibiko deialak). Oinarri konexioaren muga garrantzi ardurak: 10 zent./min. eta deia orratzita, 15 zent./min. eta deia orratzita. Hiri bakoari erabiltze ez ditzake erabiltzeak eta deia jalarren hurrengo hileko 100 MB-koak transferituko, eta, hori gainditu ondoren, aldiakora jatorria, erabiltzeak 12000 kilobyte-ra. Estatuak deialak erabiltzeko baliabideak, ez dira sartzen hurrengo eta 100 MB-koak transferituko. Zerbitzuak 18 hilabetez erabiltzeko baliabideak. Aholkulari mugikorra 400.

Gazte Festek emango diote aurten ongietorri beroa udaberriari

Berastegi » Etzi hasiko dira Urepel elkarteak antolatutako jaiak; hiru egunetan zehar izango dira ekitaldiak.

ESTI EZEIZA

Udako festak iristeko asko falta da oraindik, baina hauen usaina pixkanaka zabaltzen joan dadin, aurten ere Gazte Festak antolatu dituzte Berastegin. Etzi ekingo diete jaiak eta larunbatera arte luzatu.

Urepel elkarteak antolatutako festei pala kolpeek emango diete hasiera. Izan ere, Gazteen Biltokiko kirol batzordeak antolatutako txapelketako finalak jokatu dira etzi. Duela aste batzuk hasi ziren partidak, eta kanporaketan ostean, etzi erabakiko da zeintzuk diren irabazleak. Banakakoan, Iker Saizar eta Xabi Barriola berastegiarraren artean egongo da lehia. Iaz, azpitxapeladun geratu zen Saizar banakakoan, eta aurten, berriz ere, txapela irabazteko aukerak izango ditu. Bestetik, binakakoan, iazko irabazleek, Iker Saizarrek eta Aritz Mujikak, Iñigo Lizarribar eta Iñaki Urkizu izango dituzte aurrez aurre.

Ostegunean, lehendabiziko egunari amaiera emateko, Tolosaldeko bi talderen kontzertuak izango



Etzi, pala txapelketako finalekin ekingo diete jaiak. NEREA URBIZU

» EGITARAUA

Martxoak 18, osteguna

- **18:00.** Palako finalak.
- **21:30.** Herriko antzerki taldearen emanaldia eskolako gimnasioan.
- **23:00.** Kontzertuak Gazte Biltokian, Gargantas desgarradas eta Inde Kitxen taldeekin.

Martxoak 19, ostirala

- **17:30.** Mutil eta nesken futbol txapelketa.
- **21:00.** Herri afaria Kako jatetxean.

dira Gazte Biltokian, Gargantas desgarradas eta Inde Kitxen.

Ostiralean, dagoeneko gazte festetan errotuta dauden futbol partidak izango dira. Alde batetik herri-

■ **00:30.** Gabezin musika taldearekin dantzaldia izango da goizaldera arte.

Martxoak 20, larunbata

- **15:30.** Mus txapelketako finala Gazteen Biltokian.
- **18:00.** Sagardo dastaketa pintxo ez lagundurik.
- **Ondoren.** Toka txaoelketa.
- **00:30.** Jalisco Band musika taldearekin dantzaldia izango da aurtengo gazte festei amaiera emateko.

ko neskena, eta bestetik, mutilena. Ondoren, herri afaria izango da Kako jatetxean. Jada afarirako txartel guztiak saldu dira, eta 120 lagun inguru elkartuko dira. Egun

horretan, Gabezin talde nafarra arduratuko da, jendea dantzan jaritzeaz. Kontzertua pilotalekuan izango da.

Gabezin taldea, plaza talde gazte bat da. Beraien hitzetan, «edozein herritara joaten garenean harrigaita geratzen dira gure adinagatik, baina, beste plaza talde eta erromeri talde batek bezala jotzen eta alaitzen ditugu herriak».

Gazte Festetako azken egunean, jaiari bazkalostean ekingo diete. 15:30ean hasiko dira mus txapelketako azken partidak. Ligaxka jakatu ondoren, lau bikote sailkatu dira, eta larunbatean erabakiko da horietako nor den onena. 18:00ak aldera berriz, sagardo dastatzea egingo da. Urepel elkarteak kideek bost sagardotegi ezberdinetako botilak ekarriko dituzte herritarrek dastatzeko. Edariari laguntzeko berriz, pintxoak ere izango dira. Honela, jendeak bi eurotan edalontzia erosi ahal izango du, eta nahi bezain beste sagardo edan.

Sagardo dastatzearen ondoren, toka txapelketa jokatu da. Partehartzailak unean bertan eman ahal izango dute izena. Irabazleek, hemen ere, toka txapelketan bezala, txuleketak eta ardo botilak eraman dituzte etxera sari gisa. Amaitzeko, eta festak borobiltzeko, musika izango da. Jalisco Band taldearekin dantzaldia izango da.

Laburrak

Herri batzarra deitu du Ezker Abertzaleak gaurko

LEABURU » Ezker Abertzalek deituta, herri batzarra egingo dute gaur arratsaldean Leaburun. Bilkura gazte gelan izango da arratsaldeko zortzietan. Bertan, Ezker Abertzaleak, *Euskal Herria Zutik* izenpean egin duen egoeraren eta euskal prozesu politikoaren inguruko azterketa plazaratuko du. Honela, gaur egungo egoera politikoaz, eta hurrera begira markatutako ildoez hitz egingo dute. Baita, herri ezberdinetako plangintzaren berri eman ere.

Ibarratik Misio Taldearen Batzar Orokorra, gaur

IBARRA » Joan den astean hasi zen, Ibarratik Misio Taldeak urtero antolatzen duen Aste Misiolaria. Honen baitan, bihar Antxon Andueza salesianoaren hitzaldia izango da. *Europa Iparraldeko emigrazioa: Errumaniaren kasua: Zergatik? Ondorioak? Adaptazioa* du izenburu mintzaldiak. Jardunaldia 20:00etatik aurrera izango da San Bartolome parrokiako lokaletan. Bestalde, gaur Batzar Orokorra egingo dute, 20:00etan, toki berean. Bertan 2009ko balantzea ekonomikoa, iaz finantzatutako proiektuak eta zuzendaritza landuko dituzte.

Ostegun eta ostiralean Trinketean partidak

IRURU » Asteburu honetan, nahiz eta ostirala jai eguna izan, Irurako trinketean partidak jokatu dira. Hala ere, lehen partidak ostegunean, hilak 18, izango dira eta 20:30ean hasiko dira. Neska nagusien lehen mailako partidak izango dira kasu honetan jokatu direnak. Su-Berri 2k, Intxaurrendoren aurka ariko da eta bigarren partidari, Su-Berri 1, Hernaniren aurka lehia-tuko da. San Jose egunez, ostiralean, 10:30etan hasita, hiru partida jokatu dira Irurako Trinketean. Kasu honetan, Bigarren mailako neska nagusien partidak izango dira. Lehenengo partidari, Hernani 1, Urnieta aurka ariko da. Jarraian, Ikasberrikoak, Intxaurrendoren aurka lehia-tuko dira eta azken partidari Zaratuz, Hernani 2ren aurkako izango da.

Antzerki taldea saio berri batekin dator

Kultura » Jaietan beraien azken lana aurkeztuko dute; tabernako komeriak eta apustu bat izango dituzte hizpide etzi.

ERREDAKZIOA

Berastegiko antzerki taldea emanaldi berri batekin dator Gazte Festetara. Jaiak begira, azken hila-betean antzezlan bat prestatzen aritu dira, eta etzi aurkeztuko dute jendaurrean.

Oraingo honetan ere, umorea

izango dute ardatz antzerki taldekoek ordu bete inguruko iraupena izango duen emanaldian. Ikuski-zuna bi zatitan banatuta dago. Lehenengoak, *Tabernako komeriak* du izena. Hau herrian bertan gertatutako hainbat istorio eta gertakari-oinarritua dago, hala tabernako gorabeherak eta saltsak kontatzen ditu. Hori dela eta, antzezleek azaldutakoaren arabera, «berastegi-ugari, zenbait unetan, irudikatutako sentituko dira».

Bigarrenari *Apustu xelebrea* jarri diote izenburua. Lan honek bi bikoteren arteko apustu bat izango du ardatz.

Zazpi urte antzerkia lantzen

Berastegiko antzerki taldea herriko hainbat gazte osatzen dute. Baina aldi berean, beterrano direla ere esan daiteke. Izan ere, duela zazpi urte sortu zen berau. Urte guzti hauetan zehar, gorabehera ugari izan dituzte, eta ez da talde egonkorra izan, bertatik, hainbat eta hainbat lagun igaro baitira.

Berastegiko taldea, talde irekia da, eta antzerkia gustuko duen edonork hartu dezake parte bertan. Herriko festa eta ospakizunei begira prestatzen dituzte antzezlanak, eta batz bestea, urtean bi

emanaldi eskaintzen dituzte. Azkenia iaz, urrian egin zuten, Kultur Astearen baitan. Orduko hartan ere Berastegi eta berastegiarrak ahotan izan zituzten.

Egun sei lagunek osatzen dute antzerki taldea: Jone Gorostarzu, Olatz Etxeberria, Amaia Azkue, Garbiñe Ezkerra, Xabi Barriola eta Iban Agirrezabalak. Azken hau berria da gainera, eta lehendabiziko aldiz igoko da Berastegiko taula gainera. Beraiek arduratzen dira testuak eta gidioak idazteaz, giro-tzeaz, pertsonaien jantziez eta atrezzoaz.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko **HITZA**n jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAk Gipuzkoan **120.000** irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Pilotariak esperantzarekin hartu dute Samperrek aurkeztutako proiektua

Erremontea » Patxi Zeberio eta Iñaki Agirre 'Gaztelu'k diotenez, afera guztian «tentsio handia» jasan dute pilotariak.

IMANOL GARCIA

Badirudi erremontea argia ikusi duela tunelaren bukaeran. Maxi Samperrek mahai gainean jarri duen eskaintzak, azkenean Galarreta enpresako arduradunek onartu duten eskaintzak, hori erakusten du behintzat. Kirola desgertzeko zorian izan da, Galarreta enpresak bere jarduna hil honen bukaeran eten behar duelako eta horrekin batera erremontea bukatuko zelako. Pilotariak, bere aldetik, esperantzaz ikusi dute Samper enpresariak egindako apustua eta ilusioa piztu zaie berriro.

Pilotariak greba egiteko hartutako erabakiak kontu guztia bizkortu zuen. «Aste txarra izan da», azaldu du Patxi Zeberio pilotari elduaindarrak. «Ikusten genuen denbora aurrera zihola eta Samperrek aurkeztutako proiektua oso ona zela. Pilotariak ilusioarekin zeuden. Galarretakoek prentsaurrekoan erremontearen alde egingo zutela esan zuten eta eskaintza bat egitera etortzen zenari laguntzeko prest zeudela. Baina albiste txarra izan zen Maxik esan zigunean bere eskaintza ez zutela aztertzen, ez zutela ezer jakin nahi».

Horren aurrean, pilotariak grebarako deia egin zuten eta horrela adierazi zuten aurreko ostegunean. Larunbatean ez zuten partidarik jokatu behar eta prentsaurrekoa eman behar zuten. Baina erabaki horrek hurrengo egunean, ostiralean, mugimenduak sortarazi zituen. «Demonstratu nahi genuen ez dela egia enpresak esandakoa, erremontea segitzea ez duela nahi, eta hala bazen bazeukatela aukera ona Samperrek egindako eskaintzarekin», azaltzen du Iñaki Agirre *Gaztelu* pilotari leitzarra.

Ostiral arratsaldean bilera egin zen Galarreta enpresako arduradunek deituta. Bertan izan ziren Maxi Samper, bere abokatuarekin, eta pilotarien ordezkari bezala Koteto Ezkurra, Patxi Zeberio eta Iñaki Agirre, *Gaztelu*, bera. Galarreta enpresatik aste pare bat eskatu zuten, «pentsatzeko», baina pilotariak ezetzkoa eman zieten: «Pazientzia bukatu zitzaigula esan genien eta beste minutu bat ez genuela aguantatuko. Gogor jarriko ginela eta txarrera joango ginela, oraindik gehiago. Azkenean ordu batzuk irau zuten bilerak, baina akordio batera iritsi ginen eta gustura gelditu ginen denok», gogoratzen du Zeberio.

Gazteluk gaineratzen duenez,



Galarreta frontoian garai berri bat hasiko da apirilaren 1etik aurrera. HITZA

«guk esan genion gauza guztien gainetik erremontearen segida nahi genuela. Ez genuela baloratu duela ordainduko zituzten gurekin zituzten zorrak. Konturatu ziren serio gindoazela eta ez genituela gure interes propioak bakarrik begiratzen. Guk bai benetan erremontearen alde begiratzen genuela, beraiek ez zutena egiten».

Maxi Samperren eskaintza

Pilotariak garbi zuten proiektu sendo bat behar zela erremontea aurrera egin zezan. Zeberio dioenez, «guk aurrera begirako apustu egonkor bat egitea nahi genuen. Ez genuen nahi norbait etorri eta sei hilabete edo urtebeterako zerbaite eskaintzea. Maxi Samper prest zegoen frontoia 20 urterako alokatzeko edo erosteko. Apirilaren 1etik obra batzuk egiten hasi nahi du. 600.000 euro gastatu nahi ditu frontoia berritzen: eserlekuak aldatu, barrak txukundu, igogailuak jarri... gaur egungo egoerara egokitu. Pareta eta lurra margotu nahi ditu telebistak eskatzen duenaren arabera. Publizitate asko sartu nahi du, partida bat eman telebistaz astero...».

Pilotarien kontratuei dagokionez, guztiei urtebetez luzatzeko eskaintza egin die. «Gero kontratuak hobetuko zituela esan zuten, pilotari bakoitzarekin zuzenean hitzartuz», dio Zeberio, ondorengo gaineratuz: «Ikusten genuen aurrera begira zetorrela. Horrelako inbertsioak egiten dituenak ikusten da lan egiteko gogoarekin datorrela. Berak egin duen eskaintzara ez da inor arrimatu ere egin».

Samperrek zazpi urtetan alokarian hartuko du frontoia, erosteko aukerarekin. Galarreta enpresako bigarren akzionista nagusia da. Orain hamabi urte sartu zen enpresan eta Uharteko frontoian,

Euskalen, gauzak bultzatzen hasi zen: saskiak aldatu, pilotak aldatu, telebistaz partida ematen... «Baina beste akzionistek ez zuten ondo ikusi eta azkenean, bere akzioak mantendu bazituen ere, enpresatik aldentu zen», dio Zeberio. «Orain berriro etorri da erremontearen mundura proiektu berri horrekin».

Erremontea beharera zihola ez dagauza berria. «Jendea joatearena ez da hainbeste jaitsi, apustuarena jaitsi da gehiago», dio Zeberio. «Galarretak ez du jakin izan gaur egungo egoerara moldatzen. Bere garaian Galarretak frontoia jarri zuen eta garai hartako sis-

temarekin jarraitu du. Ez dira berriro ez publizitatearen aldetik, ez telebistaren aldetik. Ez dute frontoia erabili beste gauza batzuetarako... Azkenean hori guztia ordaindu egin da. Ikusten zen pixkanaka behera zihola eta utzi egin dute joaten eta joaten eta azkenean egoera honetara iritsi da».

Bost hilabeteko soldata kobratu gabe

Pilotariak bost hilabete daramatzate soldata kobratuko gabe. «Jendea eusten ari zen, baina azkenean pixka bat urduri jartzen hasi zen», dio Zeberio. «Otsailaren 15a iritsi zenean batzuk gelditu

nahi zuten eta beste batzuk aldiz jarraitu. Luzapen bat eskaini ziguten norbait etorriko zelakoan. Gure aldetik uste dugu pilotariak asko aguantatu dugula eta ez gara ibili kobratu eta alde egiteko asmoarekin, erremontea aurrera ateratzeko ilusioarekin baizik». Zeberio azaldu duenez, Galarretak lursail bat saldu du eta lortzen duten diruarekin ordainduko diete pilotariak. «Dagoeneko sinatuta dago dena kobratuko dugula».

«Larunbatean jendea animatuta eta gogoz zegoen, hau aurrera atera behar dela esanez»

PATXI ZEBERIO
Pilotaria

«Guretzako oso garrantzitsua da erremontea aurrera segitzea»

IÑAKI AGIRRE 'GAZTELU'
Pilotaria

Tentsio handia jasan dute pilotariak. «Jendea triste zegoen, asko toalla botata... Denetatik ikusi da», azaldu du Zeberio. «Azkenean Maxiren eskaintzaren berri jakite-rakoan, argi bat ikusten zen eta ilusioa piztu zen berriro. Baina gero azken hiru aste hauek tentsio handikoak izan dira, mahai gainean horrelako aukera izanik, ez zela aztertzen ikusita». *Gazteluk* ere Galarreta enpresaren jarrera kritikatu du: «Frontoia hartuko zuten proiektuak aipatu egiten zituzten, baina ez ziren existitzen. Ikusi dugu ilea besterik ez digutela hartu azken urte eta erdi edo bi urteotan».

Behin akordioa sinatuta, Samperrek frontoia hartuko zuela jakin ondoren, pilotariak larunbatean partidak jokatzera joan ziren eta ikusten zen «beste ilusio bat zegoela, beste gogo bat zegoela», dio Zeberio. «Jendea animatuta zegoen, hau aurrera atera behar dela esanez eta lanerako gogoarekin. Pilotarien artean babesa handia izan da. Denak elkartuta aritu gara eta zentzuz jokatu dugu eta hori oso garrantzitsua izan da». Samperrek frontoia hartzea «berri oso pozgarria» izan dela dio *Gazteluk*. «Larunbatean jokatu ez genuen pilotari asko ere bertan izan ginen. Poztasun handia izan da».

Erremontea desgertzeko arriskuan egon da. «Pena handiena horrela bukatzea zen», dio pilotari elduaindarrak. «Ostegunetan oraindik oso txukun dabil pilotalekua jende aldetik eta pena bat izango zen bukatzea. Etorri direnak uste dut lanerako etorri direla. Uste dut lana eginez aurrera aterako dugula». *Gazteluk* ere baikor begiratzen dio geroari: «Guretzako oso garrantzitsua da erremontea aurrera segitzea eta pixkanaka, gauzak ondo badoaz, goraka joanen da. Ateak itxita badaude, deus ez dago, eta irekita segitzen badute beti aukera bat dago».



Samperrek, besteak beste, Galarretaren eserlekuak aldatuko ditu. HITZA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak BERTAKO
 S.L.ko kideak HEDABIDEAK eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalandak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Antzerkia

■ **Tolosa.** May Gorostiagaren *May Gorostiaga... Presente!* obra, bihar, 20:30ean Topic-en.

Erakusketak

■ **Alegia.** Sebe Iglesias billabona-tarraren margolanak Jubilatuen tabernan. Hilaren 31 arte.

■ **Ibarra.** Marce Tena margolari ibarrarren lanen erakusketa Benito Izagirre kultur etxean. Hilaren 31 arte.

■ **Tolosa.** Emakumeak protagonista *Aurrez aurre* erakusketa interaktiboan Aranburu Jauregian. 23 emakume artistaren lanak. Apirilaren 14a arte.

■ **Tolosa.** Miren Gonzalez artista tolosarraren *Fiorduan trukean* erakusketa GKO Urban Art Galleryn. Koadroak beste gauza edo lan batzuegatik trukatu eros daitezke. Hilaren 19a arte.

■ **Tolosa.** Alain Montilla Belloren argazkiak ikus daitezke Lanbroa tabernan, gai desberdinetakoak. Hilaren 31 arte.

Deialdiak

■ **Leaburu-Txarama.** Ezker aber-tzaleak deituta herri batzarra, 20:00etan, Gazte gelan.

Hitzaideak

■ **Ibarra.** Antxon Andueza salesiarren *Europa Iparraldeko emigratioa: Errumaniaren kasua: Zergatik? Ondorioak? Adaptazioa* hitzaidea emango du parrokiako lokaletan, 20:00etan, Aste Misiolarian.

■ **Tolosa.** Amalur bidai, natur eta antropologia jardunaldiak. Sergio Fernandez Tolosa kazetariaren *7 basamortu bizikletaz eta bakarrik* hitzaidea Topic-en 20:00etan.

Ikastaroa

■ **Zizurkil.** Nazioarteko Emakumearen Eguna dela eta, martxoaren 20an autodefentsa ikastaroa

emakumeentzat Maite Monroy-rekin Atxulondun kultur etxean. Izen-ematea Aurrera plazako udal bulegoetan, 943-69 24 95 telefono zembakian. Kostua: 35 euro.

Mahai-ingurua

■ **Tolosa.** *Aurrez aurre* egitasmoaren baitan *Praktika artistikoa-praktika feminista* mahai-ingurua Aranburu Jauregian, 18:30ean, Maria Mur eta Estibaliz Sadabarekin.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga J. Korreo kalea, 2. 943-67 0128.
 ■ **Leitza.** Erbiti O. Lizarraga kalea, 7. 112.

» TELEBISTA

28 Kanala
08.30. Ur eta lur.
09.00. Alex eta Alexis.
09.30. Tolosaldean Gaur.
10.00. Klik.
10.30. Ilunpean.
11.00. Erlo klip.
11.30. Tolosaldean Gaur.
12.00. Calcuta ondoan.
12.30. Zahar berri.
13.00. Muka muka.
13.30. Tolosaldean Gaur
14.00. Klik.
14.30. Ilunpean.
15.00. Erlo klip.
15.30. Tolosaldean Gaur
16.00. Calcuta ondoan.
16.30. Zahar berri.
17.00. Muka-Muka.
17.30. Tolosaldean Gaur.
18.00. Kafe terdi.
18.30. On ein!
19.00. Planik bai.
19.30. Tolosaldean Gaur.
20.00. Kultur zulo.
 (*16:30etik 16:15erako blokea lau ordurako errepikatuko dute)

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

A Agurra



Zorionak!

Zorionak Mantalax! Jo ta ke irabazi arte!



Zorionak!

Gure irrifarrak zurearen isla direlako, zorionak eta txokolate marrubizko muxuak osaba! Maite zaitugu!

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info

bertako egunkaria
 egin zaitez harpidedun!
902-82 02 01
 (Asteunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)
www.tolosaldeko-hitza.info
 eraman/bidali izen-emate orria:
 Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
 Herriko plaza 1 • 31680 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>